

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAZEOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Gazeoko Kontzejuko auzolanen ordenantza

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honek, Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 44. artikuluan xedatzen duenari jarraituz, Gazeoko Kontzejuko auzolanak arautzea eta zehaztea du helburu. Halakotzat ulertzen dira, norberak, kontzejuan bertan, derrigorrean eman behar dituen zerbitzuak.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Kontzejua: bere eskumena udalerraren baina lurralde barruti txikiagoan erabiltzen duen toki erakundea, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen.

2.2. Auzotarra: Gazeon erroldatuta egon eta bizi den pertsona.

2.3. Auzotar familia edo familia unitatea: pertsona edo pertsona taldea, auzoaren barrutian teiltupe berean bizi dena, gutxienez bat auzotarra izanik.

2.4. Egoilea: kontzejuan etxebizitzaren bat eduki edo partekatzen duena, edozein tituluz, kontzeju erroldan inskribatuta egon gabe.

2.5. Egoitzadun familia: kontzejuan etxebizitzaren bat duen pertsona edo pertsonak, baita alokatuta bada ere.

2.6. Auzolana: auzotarrek eta/edo egoileek kontzejuaren barrutian edo bere ondasun edo jabetzetan egin beharreko lana edo jarduera, kontzejuarena den edo erabilera esleituta daukan zerbitzu publikorako ondasun bat eraiki, konpondu edo mantentzeko.

Auzolanak honela sailkatzen dira:

2.6.1. Ohiko auzolanak: auzotarrei eragin eta urtean zehar egiten direnak, kontzejuaren erabilera eta zerbitzu publikorako ondasun eta zerbitzuak instalatu eta onik zaindu ahal izateko. Era honetako lanak egin daitezke auzolanean:

a) Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

a) Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

b) Kontzeju aretoa eta kontzejuarenak diren eraikinak eta gune publikoak konpondu eta garbitzea, eta horien mantentze lanak.

c) Konponketa, hobekuntza eta garbiketa lanak saneamendu, hustubide, estolda, bolatoki, plaza, parke, lorategi, iturri, zubi, putzu eta garbitokietan.

d) Kontzejuaren ur instalazioak konpondu, mantendu eta zaintzea, urak jatorrian biltzen diren lekutik etxeetako hartuneetaraino, kontzeju titular den heinean.

e) Pertsonentzako edo animalientzako arriskuak saihesteko jarduerak egitea kontzejuaren eskumeneko lurraldean.

f) Kontzejuaren ardurapeko beste obra publiko eta zerbitzu batzuk.

g) Hilerria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

h) Kontzejuaren onurarako beharrezko izan daitekeen beste edozein ekintza.

2.6.2. Ohiko auzolan presakoa: duen premiazko beharrezana dela-eta, alkate-erregidoreak hala izendatzen duen auzolana.

2.6.3. Ezohiko auzolanak: hondamendi, uholde, sute eta abarren ondorioz egin beharrekoak.

2.6.4. Auzolan osoa: auzotar eta egoile guztiei eragiten dien eta, duen garrantziagatik, Batzarraren lehendakariak hala izendatzen duena.

2.6.5. Auzolan partziala: auzotar guztiei eragin arren, obraren ezaugarriengatik edo entitateak hala irizten diolako, nahikotzat jotzen bada auzotar batzuek bakarrik egitea, eta ez guztiek. Alkate-erregidoreak zehaztuko du zenbat auzotar joan.

2.6.6. Borondatezko auzolana: administrazio batzarrak alde aurretik onartuta, borondatez egiten den auzolana. Beste auzolan batzuetatik salbuetsiko du egindakoaren neurri berean.

3. artikulua. Betebeharrak

3.1. Auzolanak guztien onerako izanik, nahitaezkoa da kontzeju honetako auzotar familia bakoitzeko gutxienez kide batek parte hartzea (edo, auzolan oso jotzen direnetan, familia egoiliar bakoitzeko kide batek), salbuespen hauekin:

a) Familiako kide guztiak 16 urte baino gutxiago edo 65 urte baino gehiago izatea.

b) A) letran ez dauden eta auzolanera joaterik ez duten familiek gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi behar diote batzarreko lehendakariari.

Auzotarrak eta egoileak behartuta daude auzolan osoetan parte hartzera.

Aurreko letretan ezarritakoa gorabehera, kontzejuko erroldan izena eman duten auzotarrek, aprobetxamenduren bat badute, aprobetxamendu hori ematen dien ondasunarekin lotutako auzolanetan parte hartuko dute nahitaez.

4. artikulua. Deialdia

4.1. Administrazio batzarraren lehendakariak egingo du auzolanerako deialdia, eta bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta noiz hasiko den, bai eta bakoitzak zein lanabes eraman ere.

4.2. Auzolanerako deialdiak ohiko eran egingo dira, erakundearen iragarki taulan eta garaiz, behartuta daudenak auzolanetara joan ahal izateko moduan, ezohiko edo presako auzolanen kasuan izan ezik, berezko izaeragatik horietan ez baita baldintza hori bete behar.

4.3. Edonola ere, administrazio batzarrak auzolanak arrazoizko epe batean egiteko aukera aztertuko du, larrialdi kasuak, eguraldia eta abar kontuan hartuta, behartuta daudenek lanak ahalik eta erosoan egin ahal izateko.

Auzolanerako ueña zehaztean, ahalegina egingo da ez dadin izan kontzejuaren barrutian lan gehien izaten den sasoiarekin batera; asteko zein egunetan egin ere kontuan hartuko da.

5. artikulua. Auzolanak nola egin

5.1. Oro har, hasteko ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, norberak eramanez egin beharreko auzolan edo erabilerarako alde aurretik zehaztu diren lanabes, makina edo ibilgailuak.

5.2. Horretarako, auzolanen erregistro bat egongo da, eta bertan jasoko dira gorabehera guztiak.

5.3. Lehendakariak antolatuko du auzolana, eta lana ahalik eta egokien egiteko moduan banatuko ditu pertsonak eta bitarteko materialak.

5.4. Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, auzolan partziala deitu ahal izango da, eta betebeharra duen lagun kopuru jakin batek —edo baita lagun bakar batek ere— bertaratu behar izango du. Deialdi horiek trebetasun eta prestasun irizpidea kontuan izanda egingo dira, gainerakoei ahalik eta eragozpen txikienak eraginez. Egindako auzolan partzialen kontura auzolan osoak konpentsatu ahal izango dira, eta haietara joatetik libre geratu.

5.5. Kontzejuak auzolanetan parte hartzen dutenak babesteko aseguru bat egingo du, zeinak auzolanetan gerta daitezkeen istripu arriskuak eta bestelako kalteak estaliko baititu.

5.6. Auzolanak ez dakar inolaz ere kontzejuaren eta auzolanean parte hartzera behartuta daudenen arteko lan harremanik.

6. artikulua. Libre geratzeak

6.1. Auzolanera joateko betebeharra izanik aurrez jakinarazi dutenxx ez direla joango, hartatik libre gera daitezke:

a) bere ordez lana egin dezakeen beste norbait bidaliz.

a) auzolan ordu bakoitzeko 15 euro ordainduz (ordenantza hau onartzen denetik aurrera urtero eguneratuko da KPlaren arabera).

b) beste auzolan batean parte hartuz, egin gabekoaren ordainetan.

6.2. Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, administrazio batzarraren lehendakariak, urtea amaitu aurretik, auzolanetik libre geratzearen likidazioak egingo ditu. Likidazio horiek diru bilketa prozedura arautzen duen indarreko araudiari jarraituz jasoko dira, eta Arabako Kontzejuen Foru Arauak xedatutakoari jarraituz, betearazte prozeduraz ere eskatu ahal izango dira.

7. artikulua. Solairu kopurua

Auzolanetarako ez da egongo ez gehieneko ez gutxieneko kopururik, behar-beharrezkoa dena baino.

8. artikulua. Arau haustek

Ordenantza honen ondorioetarako, arau hauste izango dira deitutako auzolanetara ez agertzea, bidezko arrazoiren batekin justifikatu gabe, libre geratzeko kasuak ez betetzea eta, oro har, ordenantza honetan zehaztutako gainerako betebeharrak ez betetzea.

9. artikulua. Isunak

Joan beharra duen pertsona auzolanera ez badoa eta ez bada hartatik libre geratu, libratzearen zenbatekoa eta zenbateko bereko isuna ordainduko ditu. Bata zein bestea betearazte bidean eskatu ahal izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gazeoko Kontzejuaren 2019ko azaroaren 5eko ohiko bilkuran onartu zen; indarrean jarriko da ALHAOn osorik argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 65.2 artikuluan xedatutako epea igarotakoan, eta hala jarraituko du harik eta aldatzea erabakitzen den arte.

Gazeo, 2020ko otsailaren 13a

Lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL BORGE PÉREZ